

Txostena



beaz 2019

Aurkibidea

Diru-laguntzen kudeaketa	4
Zerbitzuak	6
Inkubagailuen kudeaketa	14
Ekimen sektorialak	22
Inpaktua enpresa sarean	28
Ekintzaitza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa	29
Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua	31
Etekin operatiboa	33

Beaz Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publiko bat da eta haren helburua enpresei eta ekintzaileei proiektu berriak sortzeko, berritzeko eta nazioartera zabaltzeko egiten dituzten ahaleginetan laguntzea da.

Beaz Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren menpean dago eta haren helburua bat dator Sailaren xede nagusiarekin: jarduera ekonomikoa eta lanpostu kualifikatuak haz daitezen laguntzea.

Helburu horiek lortzeko Beazek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak kudeatzen ditu eta, gainera, gero eta zerbitzu-aukera zabalagoa dauka proiektu berritzaileak finantzatzeko eta haien hazkundea lortzeko, inkubagailuen eskaintza zabala ahaztu gabe. Halaber, hainbat motatako proiektu eta ekimenak burutzen ditu zenbait sektoreren lehiakortasuna bultzatzeko eta Bizkaiko lurralde-oreka sustatzeko. Horren guztiaren atzean 44 langileko taldea lanean ari da enpresei eta ekintzaileei laguntza emateko.



Diru-laguntzen kudeaketa

Beazek, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile legez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaiko ekintzaile eta enpresen esku jartzen dituen programen zehazketa, balioztapen, erabaki eta kudeaketa esku hartzen du.



Programas gestionados

Kudeatutako programak

- Enpresa proiektu berritzaileen garapena // Ekintzaile
- Berrikuntza eta inbertsio arreratua sustatzeko 2i plana
- Berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsioari bultzada osoa emateko 3i programa
- Nazioartekotze programa
- Bizkaia Sortzailea
- Artisautza
- Gizarte Ekintzailtza eta Berrikuntza

Programas gestionados: 7
Fondos adjudicados: 15.051.757€
Proyectos presentados: 644
Proyectos aprobados: 417

Hurrengo taulan enpresen sorkuntza, berrikuntza eta nazioartekotzerako zeharkako diru-laguntzen inpaktua agertzen da:

Alorra	Onartutako proiektuak	Aurreikusitako lanpostu sorrera 3 urtera	Aurreikusitako fakturazioa 3 urtera
Ekintzailtza	133	1.128	162.330.000,00 €
Berrikuntza 2i	157	285	124.200.000,00 €
Nazioartekotzea	92	129	87.500.000,00 €
3i	15	69	27.500.000,00 €

Oharra: Programa sektorialen inpaktua (Bizkaia Sortzailea, Artisautza, eta Gizarte Ekintzailtza eta Berrikuntza) ondorengo atal batean azalduko da.





Zerbitzuak

Beazek zenbait zerbitzu eskaintzen ditu enpresen sorkuntza, finkatze-prozesuan eta hazkunde funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak indartzeko

Zerga-kalifikazioko txostenak

2019an, zazpigarren urtez, Beazek Berrikuntza teknologikoaren zioz Sozietateen Gaineko Zergan kenkariak eskatzeko kalifikazio txostenak egin zituen. Zerbitzu hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Beazek sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitua da. Gehikuntza nabarmena egon da egindako txostenen kopururuan eta aplikatutako kenkarietan.

Egindako txosten kopurua: 157 espediente
--

Enpresa kopurua: 122

Aplikatutako kenkariaren aurreikuspeneko zenb.: 1.793.708,99€

Halaber, 2017tik Beazek zerga kalifikazioko txostenak ere egiten ditu, sozietateen gaineko zergaren 64 bis artikulua babesean. Ikerkuntza eta garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko zerga

Bizkortzea

Enpresak bizkortzeko zerbitzuaren bosgarren urtea. Aurreko urteetan bizkortu ziren proiektuekin izandako balantze positiboaren ondorioz Beazek zerbitzua zabaldu zuen 2019. urtean, hazteko gaitasun handiko proiektuak dituzten beste antolakunde batzuetan ere erabiliz.

pizgarriak kontuan hartu behar den finantziario-tresna dira. Aukera interesgarria da I+G+b proiektu bati hasiera eman nahi dietenentzat, laguntza ekonomikoa bilatzen ari direnean, eta baita beren hornitzaileen teknologia maila hobetu nahi duten enpresa erreferenteentzat ere. Bizkaian enpresen berrikuntza bultzatzeko beste era bat, Sozietateen gaineko Zergan oinarritua, eta gakoa bi enpresaren arteko lankidetzaren dena: batek proiektu berria garatzen du eta besteak finantzatu egiten du. Bion artean –Ogasun eta Finantza foru Sailak beharrezkoa den aurretiazko zerga kalifikazioko txostena egiteko baimendutako erakunde gisa– Beaz dago. Lotesleak eta doanekoak diren txostenak ematen ditugu.

Egindako txosten kopurua: 10 espediente

Enpresa kopurua: 10

Aplikatutako kenkariaren aurreikuspeneko zenb.: 8.413.840,79€

13 enpresa bizkortuta

Bizkortutako proiektuen %29ko batez besteko gehikuntza
--

Bizkortutako lanpostuen batez besteko gehikuntza %26koa da
--



Open Innovation dinamikak

Proiektu kolaboratiboak hautemateko eta enpresa erreferente, ETE eta startupen arteko harremana errazteko, 2019an berrikuntza irekiko (open innovation) zenbait ekimen burutu dira.


Bizkaia Open Future. Programa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Telefónicaren arteko elkarlanean burutzen da. Helburua Bizkaiko enpresen digitalizazioan laguntzea da. 2019an berrikuntza irekiaren ildotik lan egin da eta Bizkaiko enpresa erreferenteen 3 erronka plazaratu eta garatu dira (SilMQ, Uren Patzuergoa eta GHI) eta horiek startup eta ETEen 94 proposamen jaso dituzte. Proposamen guztietatik (94), 38 Euskadikoak izan dira, 43 Estatukoak eta 9 nazioartekoak. Halaber, Bizkaia Open Futureren barruan abian jarri da bizkortze komertzialeko programa: horren bitartez Telefónicak konpromisoa hartzen du enpresaren profil komertzialarekin bat datozen startup berritzaileak bizkortzeko, helburu horretan bere sare komertzial osoa erabiliz. Ironchip eta Bilfluxer izan dira 2019an programan parte hartu duten Bizkaiko 2 startupak.

BIND 4.0. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du eta Beazek BIC Bizkaia bidez parte hartzen du, haren eginkizun nagusia inkubagailuan programan parte hartzen duten lurraldetik kanpoko startupek lekua egitea da. 2019. urtean burutu zen hirugarren edizioan Bizkaiko 52 enpresa eragilek parte hartu zuten eta nazioarteko 578 startup baino gehiagorekin partekatu zituzten beren beharrianak. Une honetan

38 lankidetzeta-proiektu gauzatzen ari dira startup horien eta Bizkaiko enpresa eragileen artean. Laugarren edizioko nobedadea foodtech arloan erreferente diren enpresen agerpena izan da.

Berrikuntza irekiko dinamiketan erronkak partekatu dituzten enpresa erreferenteen kopurua: 30

Proposamenak egiten dinamiketan parte hartu duten startup eta ETEen kopurua: 500 baino gehiago



SLen sortze telematikoa

Beazek seigarren urtez jarraian enpresak telematikoki sortzeko zerbitzua eskaini du. Izapidetzeaz gain, ekintzaileen proiektuez informatzeko eta aholkatzeko zerbitzuak ematen dira.

Informazio eta aholkularitza: 57 enpresa

Sortutako SLak: 42

Finantzaketa-Dirulaguntza mapa

ETEEK bultzatutako proiektuetan finantzazio handiagoa lortzeko, Finantzaketa-Dirulaguntza mapa zerbitzuak bilerak antolatzen ditu CDTI, ENISA, ICEX, Seed Capital Bizkaia, Hazi eta SPRIko teknikariek.

Gonbidatutako antolakundeak: 8

Bertaratutako enpresak: 70

Laguntza ematen duten erakundeen eta enpresen arteko bitariko bilerak: 37



Barne-ekintzailletza

2015ean Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak abian jarri zuen Barne-ekintzailletza bultzatzeko ekimena hiru foru aldundien eta euskal BICen laguntzarekin; Beaz zentro horietako bat da. Antolakundeetatik bertatik negozio berriak sortzeko helburuarekin sortu zen ekitaldiaren barruan zabalkunde, gaikuntza eta networking jarduerak eta adituen laguntza daude. 2019ko ekitaldian barne-ekintzailletza bultzatzeko planaren 5. edizioa burutu zen.

Bizkaiko enpresen 51 barne-ekintzailletza proiekturi eman zaie laguntza.

Aurreikuspenen arabera, laguntza jaso duten proiektuek 425 lanpostu eta 85 milioi euroko fakturazioa sortuko dute 3 urtetan.

EEN Sarea

Beazek ETEen nazioarteko lankidetzak bultzatzeko zenbait ekitaldi antolatzen ditu beste erakundeekin batera eta horietan parte hartzen du; Europako homologoekin elkarlanean jardun nahi duten ETEei aholkularitza ematen die eta bazkideak bilatzen dizkie; eta Saretik eskaintzen diren zerbitzuei eta Europako programeen bidez dauden finantzatze-bideei zabalkunde zabala ematen die hainbat bide erabiliz.

Hemengo/eskualdeko ekitaldiak beste batzuekin batera antolatzea: 4

Hemengo/eskualdeko ekitaldietan parte hartu dutenak: Bizkaiko 21 enpresa

Interes-adierazpenen kudeaketa: 23 (12 Bizkaiko enpresak atzerrirantz eta 11 atzerritik Bizkaiko enpresetara)



Beazko guneak

Beazek enpresa eta ekintzaileen esku jartzen dituen guneetan gero eta jarduera gehiago antolatzen da. Hainbat jarduera-mota burutzen da -horietako asko sormen-arloak bultzatuak-, eta gelen erabileran landinamika desberdinak erabiltzen dira Beazko guneetan, haien ikusmirak zabalduz.

Bizkaia Sortzailea Guneko jarduerak: 122

Bizkaia Sortzailea guneko jardueretara bertaratutakoak: 3018 pertsona (1933 emakume eta 1085 gizon).

Beazko gelen erabilera: Kanpoko eragileekin edo kanpoko eragileen artean egindako bilerak: 2.250 pertsona



Bizkaia Mentoring Network

eazek 2016. urtetik kudeatzen duen sare honek harremana errazten du enpresetako mentoreen eta hazkunde handia izateko aukera daukaten proiektuak garatzen ari diren startupen artean, proiektu horiek bizkortzeko lagun dezaten. Sarea sei urte edo 10 langile arteko enpresentzat pentsatuta dago, bizkortzeko proiektu jakin bat identifikatuta izan behar dutenak. 59 pertsonak osatzen duten mentore-sarearen helburua hazteko potentzial handia duten proiektuak bizkortzen laguntzea da. Mentoring zerbitzua banaka zein taldean jasotzeko aukera dago.

Erregistratutako aholkulariak: 61

Mentoring prozesuan ari diren startupak: 24

Enpresa proiektuen hedapena

Beazen hedatze-kanalak bultzatu eta dibertsifikatu egin dira Bizkaiko enpresa eta ekintzaileen jardura eta proiektuei zabalkundea emateko. 2017an egin zen bezalaxe, 2018an ere bultzada bererzia eman zitzaion bideoak argitaratzeari eta gizarte sareetan presentzia izateari.

Bisitaldiak webera: 153.442

Hileroko buletinak: 12

Argitaratutako bideoak: 11

Gizarte sareak: Twitter, LinkedIn, Youtube, flickr.

Beazen argitalpenak: 2



Prestaekin

Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresa Sustapenerako Zerbitzuarekin batera, Beazek, bereganatze-saioak antolatzen ditu enpresa ekimen berritzaileen garapen eta eskalagarritasunerako kritikoak diren eremuetan. Ekimenaren helburua Aldundiak enpresa berri bat sortu edo proiektu berritzaile bat garatu duten pertsoneri ematen dien babesa hobetzea da, hainbat gaitan jakintza sustatuz: negozio-eredua, marketin digitala, komunikazioa. Beren enpresa-proiektuak garatzeko eta abian jartzeko fasean dauden ekintzaileei zuzenduta dago

Gaikuntza-moduluak

- Ideiatik errealitatera
- Finantza informazioa interpretatzen ikasi
- Markaren irudia
- Lean ekintzailatza
- Marketin digitala
- Inbertsiogileen bila
- Komunikazio ezazu zeure proiektua



DRIVE, Bizkaiko ezkutuko txapeldunak

2019an Beazek abian jarri zuen DRIVE proiektua Bizkaiko “ezkutuko txapeldunak” diren 24 enpresarekin elkarlanean.

Proiektuaren ardatza honelako industria ETEak aztertzea da: eskuarki familia-jatorria dute, izar-produktu edo teknologia bat daukate eta esportazio-maila handiak aukera ematen die leku nabarmena, hazkunde iraunkorra eta sektorearen batez bestekoaren gainetik dagoen errentagarritasuna izateko.

Proiektuak helburu bikoitza du. Alde batetik, enpresa hauei ikusgarritasun handiagoa eman nahi zaie eta, Beazek Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera beraien hazkundera lagun dezan, era berriak bilatu. Beste alde batetik, azterketaren helburua Bizkaiko enpresa-sarera eraman ahal diren jokabideak detektatzea da.

Nodos Internacionales

En 2015 la Diputación Foral de Bizkaia suscribe un acuerdo de colaboración con MassChallenge, la mayor aceleradora de empresas del mundo, con el fin de conectar a personas emprendedoras y startups de Bizkaia con mercados, redes e inversores del ecosistema de innovación global.

En el marco de este acuerdo, durante el 2019, desde Beaz se participa en la organización de la cuarta competición local de startups que permite a las ganadoras acceder a los servicios de aceleración que Masschallenge ofrece en su sede de Boston y acceder a la semifinal mundial.

Beaz asume la dinamización y coordinación de dicho concurso, propiciando que en el 2019 45 startups (31 de Bizkaia y 14 de Gipuzkoa) participen en él y que 15 de ellas hayan tenido una estancia de una semana en la aceleradora de referencia mundial Masschallenge. Destacable especialmente que las startups S-There, Lukkap Data&Analytics, Medicsen (Bizkaia) haya sido seleccionada para permanecer cuatro meses de aceleración en Masschallenge Boston.

Asimismo, durante el 2016, se acuerda con otra entidad de Massachussets, CIC (Cambridge Innovation Center) otro convenio en virtud del cual, 6 startups bizkainas podrán acceder a una estancia de 6 meses en el CiC bajo la tutoría de MassGlobal Partners. Así,

Beaz, participa en la difusión y coordinación de esta oportunidad, y ha propiciado que 28 Startups de Bizkaia hayan disfrutado de una experiencia de aceleración en CIC durante este tiempo.

En Abril de 2018 se firmaba también el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la aceleradora internacional SOSA, con base en Tel Aviv, con el fin de promover la conexión entre startups de Bizkaia y el nodo emprendedor empresarial israelí. En la edición del 2019 se han presentado 25 Startups al proceso de selección, de las cuales 7 han sido seleccionadas para la estancia en Tel Aviv. El proceso de aceleración en Israel consiste en una estancia de una semana con agendas personalizadas que incluye talleres específicos, mentorización personalizada y actividades de Networking.



Inkubagailuen kudeaketa

Bezek badauka sare propioa proiektuak inkubatzeko eta bizkortzeko.

BIC Bizkaia

BIC Bizkaia teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan espezializatutako inkubagailua da, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Parke Teknologikoak sustatua eta Bezek kudeatua.

2014ko udazkenean sortu zen eta hau haren bostgarren jardute-urtea da. %90eko okupazio-maila lortzeaz gain, berebiziko garrantzia eman zaio BICen dauden startupak bizkortzeari, haien profilari egokituz.



Inkubatutako enpresak: 20

Enplegua inkubatutako enpresetan: 364

Inkubatutako enpresen fakturazioa: 54.103.504 €

Ikustaldi, jardunaldi eta azokak

- BIC Bizkaian guztira egindako jardunaldi edota ikustaldiak: 68
- Guztira bertaratutako pertsonak: 1375
- Azaroaren 18tik 21era BIC Bizkaiak BICeko zenbait enpresa ordezkatzuz Dusseldorf-eko Osasun Azokan parte hartu zuten



Inkubatutako enpresak

A3Z Advanced

Addimen Bizkaia S.L.

Aleoviro S.L.

Anbiotek Biotechnologies

Biofungitek S.L.

IMG Pharma Biotech S.L.

Fastbase Solutions, S.L.

Lumiker Aplicaciones Tecn. S.L.

Novattia Desarrollos S.L.

Osasen Sensores S.L.

RDT Ingenieros Bilbao S.L.

Stemtek Therapeutics S.L.

The Art of Discovery

Tubacex ID

Tubacex Up-Stream Technologies

Vacunek S.L.

Dronak

Nautilus Floating Solutions

Mikrobiomik

Phage Technologies



KBi Digital

KBi Digital, ekintzailatza digitaleko proiektuetarako inkubagailu aurreratua funtzionatzen egon den laugarren urtea izan da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin bultzatu eta Bilbao Ekintza eta Beazek kudeatzen dute.

KBi Digitalek badu ezaugarri bereizgarri bat: bizkortze-zerbitzu pertsonalizatua. Hor ekintzailatza digitaleko adituek laguntza ematen diete startupek honelakoxe proiektuak identifikatzen eta abian jartzen agertzen diren gai kritikoetan eta proiektuen eskalagarritasunean. KBi Digitalen zerbitzu espezifikoak daude bertan kokatuta dauden startupak bizkortzen laguntzeko. Aholkularitza pertsonalizatuaz gain badauka badu trebakuntza programa bat enpresen profilari egokituta eta proiektu berriak erakartzeko dinamizatzeko-programa ere.

Inkubatutako enpresak: 12
Profesionalak: 5
Enplegua inkubatutako enpresetan: 46

Inkubatutako enpresak

Fundación Fair Saturday

Restuento S.L.

Tucho Consulting for Change S.L.

Onura Bat S.L.

Koalak Studios Koop. Elk. Txikia

Venuesplace S.L.

KB Innovation system S.L.

Digitorium

Hunters of Magic, S.L.

Sormenetxea S. coop (Club

Bremen)

Seginet

Batera Tik

Profesionalak

Iñaki Arrieta Diseñador (Insólito
Comunicación)

Natalia González Matrelle

Ainara García Miguel

Mikel Agirrezabala

Aintzane Zorrilla



Design Kabi

Design Kabi negozioia zehazteko eta enpresaren bideragarritasuna aztertzeko fasean dauden enpresa proiektuetarako inkubagailua da. Azpimarratzekoa da aurten Design Kabin PlayStation Talents Games Camp Bilbao Bizkaia-en bigarren edizioa burutu dela. Helburua bideo-joko sektoreko startup berriak merkatura sartzen laguntzea da.

Ekintzaileak Design Kabin: 23

PlayStation Talents Games Camp Bilbao Bizkaian garatutako bideo-joko-estudioak: 2

Inkubatutako proiektuak

Amalur
Aplanet
C4oL
Daybat
Efilm Online
Fleet
Four9s
Nymiz
Persei Vivaium
Postwall
Saint Intelligence



Zitek

Zitek EHUK, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beazek sustatzen duten ekimena da eta haren helburua EHUren Bizkaiko Campusean ekintzailtza-kultura zabaltzea eta enpresa berritzaileak eta teknologia oinarria dutenak sortzea da. Horretarako hiru unibertsitate haztegi dauzka -Leioa, Portugalete eta Bilbon-, eta baita Ekintzailtza kultura zabaltzeko programa. Hain zuzen ere programa hau 2015ean finalista izan zen Enpresa Sustapenerako Europako sarietan eta Estatuko finala irabazi zuen. 2019a bereziki nabarmentzekoa izan da ekintzailtza-kultura bultzatzeko ekimenei dagokienez eta horietan 2000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute.



Inkubatutako enpresak: 19

Ekintzailtza kultura programa: 19 ekimen

Enplegua inkubatutako enpresetan: 84

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 3.500.000€

Inkubatutako enpresak

Alex & Alex
Basquenet, C.B.
Edurobotic
Emen4sport
Gyk
Ibine
Keynetic Technologies
Noismart
Norlock, S.Coop.
Sogestraf
Nemergent Solutions S.L.
Swift Flats
Mr Flash
Karma Technologies
Ekobideak
Wonderfoods
Shyncrina
Aotech
Network Out Technologies

Ekintzailtza kultura bultzatzeko programako ekimenak: 19

- Arte Ederretako Ikasberri
- Zitek Coffee
- Zitek programa zabaltzeko hitzaldiak
- Talentia tailerra
- Jardunaldiak eta BBSC saria
- Ihes-gelak Zitek Scape
- Silver Economy ekintzailtza mintegia
- Fakultateen hitzaldiak
- Think Big lehiaketa
- Merlin ikertzaileen tailerrak
- B-Cubes Sarriko
- "Zitek Ikertzaileak" hitzaldiak
- SILO-proiektuen balorizazioa
- Ekin Ekintzailtza 48 ordutan
- Inbertitzaileei aurkeztea

Deusto kabi

Deustuko Unibertsitatearen enpresa berritzaileen haztegi honen helburua unibertsitate spin-offak bultzatzekoa da. Beazek bertan ekintzaileei aholkularitza eta orientabidea eskaintzen die.

Inkubatutako enpresak: 12

Enplegua inkubatutako enpresetan: 35

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 320.000 €



Ekintzailetza kultura bultzatzeko ekimenak

- Master Dual Emprendimiento en Acción
- Deusto Start I
- Deusto Start II
- Semana Deusto Emprende
- Foro de empleo y emprendimiento
- Creaction!
- Deusto Diálogos
- Programa emprendimiento juvenil
- Foro de Inversión
- Deusto Social lab
- Jornada sobre el impacto social de la universidad

Inkubatutako enpresak

Automatización Industrial Avanzada S.L.
Labsland Experimentia S.L.
Osasuna Mugimendua Kontrola S.L.
Smart Track Solutions S.L.
Kieto For Kids S.L.
Plataforma 50 Hacking Longevity
Koop. Elk. Txikia
Sacen Technology Solutions S.L.
Bytek Smart Solutions S.L.
Inbizi Health Care Koop. Elk. Txikia
Job Polo S.L
Tawity Drive S.L.
Blue Connecting Emotions S.L.

BBF Fintech

BBF Fintech teknologia berrietan adituak diren eta finantza-sektorera bideratuta dauden startup-entzako inkubagailu espezifikoa da.

Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Mondragon Unibertsitatea dira haren sustatzaileak.

Bilbao Berrikuntza Faktoriaren instalazioetan dago, eta 100 lagunentzako lekua du.

Dominion eta Abside Smart Financial Technologies taldeek inkubagailuaren garapena babesten dute, kanal bakarreko salmentan ezagutza eta gaitasunak emanaz.

Enpresa inkubatuak: 2
Inkubatutako enpresetako enplegua: 52 enplegu
Enpresa inkubatuen fakturazioa: 4.500.000 €



BIC Bizkaia Ezkerraldea

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duten BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailuaren helburu nagusia Ezkerralde, Meatzalde, Erandio eta Alonsotegi eskualdeetako enpresa ekimen berritzaileei laguntza ematea da.

Inkubatutako enpresak: 27

Enplegua inkubatutako enpresetan: 102

Fakturazioa inkubatutako enpresetan: 5.800.000€



Inkubatutako enpresak

ERING, S.L.
AUTOSIMPRO, S.L
GALLA VAN WORKS, S.L.
DANTAK, S.L.
SINE INGENIERIA ELECTRICA,
S.L.
PURPLE BLOB, S.L.
MUON TOMOGRAPHY SYSTEMS,
S.L.
DIFFERENGIN, S.L.
GLOBAL SURFING SERVICES, S.L.
ELASTIC INNOVATION HUB, S.L.
UNDERSAT MOBILE
COMPUTING IT, S.L.
SAMYLABS, S.L.
SURFING CHALLENGE, S.L.
ALLINFREE
DATIVE PARTNERS, S.L.
IRONCHIP TELCO, S.L.

OPOSITA URILAN S.L.
SHARING LOGISTICS, S.L.
EDINTEK, S.L.
HASHCODE ENGINEERING, S.L.
KAYTEK
BIG SHOWI
CAMOZZI AUTOMATION S.L.
S-THERE TECHNOLOGIES S.L.
JEEK JEE PROJECT S.L.
GOURMET TRADING S.L.
SIX TO GO SOLUTIONS, S.L.

Ekimen sektorialak

Zenbait sektore eta arlotako jarduerak, berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatzeko diru-laguntza sektorialak kudeatzen ditugu.

BILBAO BIZKAIA
DESIGN WEEK
#BBDW19

BIDC
BILBAO BIZKAIA
DESIGN COUNCIL

UNIVERSITY OF
BILBAO

Bizkaia

Bilbao

#BBDW19

Bizkaia Sortzailea

Beazen ekite-ildoetako bat sormen-sektorea bultzatzeari dagokiona da eta helburu hau zenbait tresnaren bitartez gauzatzen da. Horien artean daude Bizkaia Sortzailea eta Artisautza foru programak eta BiDCren idazkaritza nagusia kudeatzea, hemengo eta nazioarteko ekitaldiei laguntza ematea eta UNESCOren sormen-hirien sarearen barruan egotea.

Bizkaia Sortzailea programa

2019an Beazek, zortzigarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Sortzailea programan parte hartu du. Honen helburua bideo-joko, ikus-entzunezko, moda eta produktuen diseinu sektoreetan enpresa proiektuak sustatzea da.

Aurkeztutako proiektuak:	44
Onartutako proiektuak:	29
3 urtera proiektatutako enplegua:	85
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	8.200.000 €
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	750.000 €

BiDC

Beaz, Bilbao Ekintzarekin batera, BiDC - Bilbao Bizkaia Design Council-en idazkaritza teknikoaz arduratzen da. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri zuten ekimen honen helburua sormen-industriak Bilbo eta Bizkaiaren garapen ekonomiko eta nazioarteko proiektiorako faktore legez sustatzea da.

BiDC sormen-sektore ezberdinetako 216 enpresaren foroak eta ekonomia, kultura eta arlo akademikoetako hemengo 30 erakunde esanguratsuk osatzen dute. Beaz denekin harremanetan egon zen elkarrekin ekimenak antolatzeko eta sormen-industriak bultzatuko dituzten proiektuak garatzen elkarlanean aritzeko.

2019ko azaroaren 14tik 21era BiDCk Bilbao Bizkaia DWeek-en bostgarren edizioa koordinatu du. Hamar sormen-arloekin lotutako 46 ekitaldi -bertokoak zein kanpokoak- izan ziren guztira, Bizkaiko sormen-arloko eragileek sustatuak. Aste horretan BiDCk, halaber, Cities & Design eta Industries & Design jardunaldiak antolatu zituen. 2019ko edizioan gai nagusia Future us! izan da.



2019n laguntza jaso duten nazioarteko ekitaldiak: 8

- Selected
- Bilbao International Art&Fashion
- Fun & Serious
- Bilbao Maker Faire
- Bilbao Seriesland (Web Series)
- AzPlay
- Serifalaris
- Tech Week



UNESCOren sormen-hiriak

Design Week 2019an, Dundee (Diseinuaren kategorian UNESCOren hiri sortzaileen sareko kidea, Bilbo kasu) da ekitaldira gonbidatutako hiria.

Egun batzuetan Eskoziako hiri honetako ordezkari bat hartzeko plazera izan dugu, bertako alkatea eta sektore sortzaileko profesionalak tartean zirela.

Gainera, programatutako jardueretako batzuk herritarrekin batera diseinatu dira, hainbat erakunderen artean eta baita hainbat hiriren artean ere, hala nola “hirien etorkizuneko etorkizuna” tailerra, Unesco Sareko bi hirirekin (Dundee eta Gratz).

Artisautza programa

2019an Beazek, seigarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza sektoreari laguntzeko daukan programan parte hartu zuen, Bizkaian artisautza sektorea dinamizatzeko eta berpizteko artisau elkarte eta enpresei laguntza emanez.

Artisauak aurkeztutako proiektuak: 63
Onartutako proiektuak: 61
Diru-laguntzaren zenbatekoa: 289.645 €

Gizarte ekintzailtza eta berrikuntza plana

2019an Beazek, seigarren urtez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta Gizarte Ekintza Sailak, gizarte enpresa edo erakunde berritzaileen proiektu berriak abian jartzen laguntzeko bultzatzen duten Gizarte Ekintzailtza eta Berrikuntza Programaren kudeaketan parte hartu zuen. Ordezkaritza gehien duten eremuak zahartze, ezgaitasun eta garapen iraunkorrari zuzendutako gizarte-osasun zerbitzuak dira.

Gainera, elkarrekin lan egin da urte osoan lan-plan batean eremu horretako enpresek zabalkunde, gaikuntza eta lankidetzan dituzten beharrianak estaltzeko. Honelako proiektuen inpaktua neurtzeko 2016. urtean definitu zen tresna aplikatzen jarraitu dugu.

Aurkeztutako proiektuak:	34
Onartutako proiektuak:	25
3 urtera proiektatutako enplegua:	165
3 urtera proiektatutako fakturazioa:	9.000.000 €
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	529.751 €

Bizkaia Oreakan

Ekonomia Sustatzeko Sailak, eta horrenbestez Beazek ere, konpromisoa dauka ekonomia sustatzeko abian jarritako politiken norainoko eta inpaktu orekatua lortzeko.

Helburu hori izanik, funtsezkotzat jo da beren enpresa-sarearen lehiakortasuna lortzeko lanean ari diren lekuan lekuko ekonomiaren garapenerako eragileekin lankidetzan jardutea.

Horretarako, 2016an abian jarri zen “Bizkaia Oreakan” proiektua eta, horren baitan, Bizkaia 4 eskualdetan banatu da. Beazko eta Ekonomia Sustatzeko Saileko lantalde tekniko batek eskualdeetako mahaietan lan egiten dute lekuan lekuko eragileekin batera, eskualde bakoitzeko lehiakortasuna bultzatzeko asmoz. Proiektuan Bizkaiko 12 eskualdetako 60 pertsona baino gehiago elkarlanean ari dira.

Hasi zenetik laugarren urtea den honetan beste 11 erronka garatzen lan egin dugu. Horretarako 100 barne bilera baino gehiago burutu dira eta 90 enpresa baino gehiagorekin lan egin da lantegi, jardunaldi, prestakuntza-modulu, aztertze bisitaldi eta enpresen arteko ekite-planetan.

Gainera, urte horietan lortutako ikaskuntzen arabera, eta lehiakortasun- eta berrikuntza-politiken maila anitzeko gobernantzan eta lurralde-kohesioan arrakastatsuak izan diren beste kasu batzuk partekatzeko



eta haietatik ikasteko, EU Interreg Programari Cohesion proiektu-proposamena aurkeztu zitzaion. Proiektuak 3 urte iraungo du (2019 – 2022) eta guztira 1.570.000 €-ko aurrekontua izango du. Beaz enpresari esleitu zaio Lider erakunde gisa, eta Europako 8 eskualdetako 10 bazkidek parte hartzen dute.

Lan-esparruak: enpresen lehiakortasuna, enpresa-ingurunearen kalitatea eta eremuen espezializazioa

100 lan-bilera baino gehiago eta jarraipena zonaldeetan.

Landutako 16 erronka

90 enpresak parte hartu zuten lan-ildo desberdinetan 2019an.

2 laguntza-dekretu berri argitaratzea: TIT. Elkartegiak eta Eskualdeko Lehiakortasunari Laguntzeko Dekretu Berriaren IV.

Interreg Europe projektuan parte hartzea, Europako 8 eremutako 10 bazkiderekin, 2019 - 2022 horizontearekin eta 1,57 milioi euroko guztizko aurrekontuarekin.

Enkarterriko estimulu plana

Enkarterriko eskualdean berebiziko eragina izan du krisiak eta horrek inpaktu negatiboa izan du eskualdearen garapenean eta haren enpresa-sarearen lehiakortasunean. Egoera ikusirik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta eskualdeko udalerriek erabaki zuten Enkarterriko garapenean laguntzeko 2018-2019 aldirako plan berezi bat definitzea.

Estimulu Planaren barruan 12 neurri daude eskualdeko beharrizan jakinei erantzuteko eta helburua enpresen lehiakortasuna hobetzea da. 2019an Beaz neurrietako bi garatzeko lan gogorra egin du:

- Eskualdeko industria sarea indartu, lehiakortasuna hobetu eta lanpostu berriak sortzeko proiektua.
- Ekintzailletza aurreratuko programa, enpresa ekimen berriak eta lanpostuak errazteko, berebiziko arreta emanez gazteei eta emakumeei.



Enpresak Bizkaira erakartzea

Lan-ildo honen helburu nagusia eduki berritzaile eta teknologiko handiko Bizkaira startupak erakartzea da, lurraldeko enpresa berritzaileen kopurua handitzeko eta enpresa horien maila igotzen laguntzeko.

Beste helburu batzuk:

- Bizkaiko enpresa-ekosistema eta dauden euskarri publiko-pribatuko tresnak ezagutzera ematea lurraldetik kanpoko enpresei
- Etorkizun handieneko startupak sustatzen dituzten enpresen eta pertsonen sare bat garatzea, epe ertainean sare hori atzeraelikatzeke eta BFAk enpresentzat duen eskaintzari buruzko ezagutza zabaltzeko aukera egongo delakoan.
- Lantaldeak koordinatzea eta Bizkaian finkatzeko interesa izan dezaketen enpresen eskaerei erantzuteko protokoloa ezartzea.

Kontaktatutako startup-ak: 74

Bizkaia bisitatu duten startup-ak: 25

Bizkaian kokatutako startup-ak: 18



Inpaktua enpresa sarean

Beazek Bizkaiko Foru Aldundiaren Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren laguntzaz sortutako enpresa berritzaileen emaitzak ebaluatzen ditu urtero. 2019an egindako ebaluazioa 2013-2017 denboraldian sortutako enpresei dagokie.



Startupen emaitzak 2014-2018	
Enpresa kopurua	226
Aktibo dagoen enpresa-kopurua	199
Biziraupen-indizea	88,05%
Fakturazioa guztira	235.269.697,23 €
Batez besteko fakturazioa	1.182.259,79 €
Enplegua guztira	1.251
Batez besteko enplegua	6,29
Kapital soziala guztira	37.839.631,07 €
Batez besteko kapital soziala	190.149 €
Guztira esleitutako diru-laguntzak	11.507.593€

Enpresak sortzerakoan sektorerik dinamikoenak Eduki digitalak eta Internet, eta Sormen Industriak dira, nahiz eta biziraupen-tasarik txikiak dutenak izan. Sektoreok, aldi berean, lanpostu gehien sortzen dutenak dira; zehazki bion artean sortutako lanpostuen %38,4 osatzen dute, nahiz eta langile bakoitzeko Ekoizkortasun tasak, alderatuz gero, txikiak izan.

Industria tradizionalaren sektoreek (Fabrikazio eta muntatzea, Metalezko produktuen eraldaketa, Industria ekipoak) enpresak sortzeko tasa txikiak dituzte baina ondoren egonkortasun handiagoa dute (%100eko biziraupen-indizea) eta batez besteko enplegu-tasak eta fakturazioa gainerako sektoreetakoak baino altuagoak izan ohi dira.

Batez besteko kapital sozial handiena daukaten sektoreei dagokienez, bereziki Energia eta ekipo osagarriak nabarmentzen da, Biozientziak eta Osasuna, Metalezko produktuen eraldaketa eta Industria ekipoekin batera.

Ekintzailletza eta berrikuntza sistemako eragile aktiboa

Eusko Jaurlaritzaren-SPRIrekin batera egindako jarduerak

2019an hurrengo esparruetan jardun dugu elkarlanean:

Beaz-SPRI lankidetzaren-eremuak

Ekintzailletza programak (Ekintzaile, Luzaro-Ekintzaile, Aurrera Funtza eta Basque Funtza)

Eusko Jaurlaritzaren barne-ekintzailletza bultzatzeko ekimena

BIC Bizkaia inkubagailua aurreratuaren kudeaketa

Ezkerraldeko Enpresen Garapen Zentroa - BIC Bizkaia Ezkerraldea (lehen Cedemi) kudeatzea

Bind 4.0. Ekimenean parte hartu duten enpresa eragileekin garapen-proiektu bati ekin dioten startupak hartzea eta tutorizatzea.

Bilboko Udala-Bilbao Ekintzarekiko lankidetzaren-eremua

2019an elkarrekin dinamizatu dira ekimen hauek:

Beaz-Bilbao Ekintza lankidetzaren-eremuak

KBi Digital inkubagailuaren kudeaketa

BiDCren idazkaritzaren elkar-kudeaketa. Bizkaiko sormen-sektoreen zenbait ekimen bultzatzea

Bilbao Bizkaia Film Commission

Dweek

Beste lankidetza batzuk

2019an lankidetzan aritu gara hurrengo eragileekin:

Elkargi: lankidetza-hitzarmena ETEek finantzaketa errazago eskura dezaten, berrikuntza funtsaren eta Aurrera programaren bidez.

Tecnalia: Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eta Tecnaliaren arteko lankidetza-hitzarmenaren baitan.

Cámara de Comercio: lan-bilerak elkar sakonago ezagutzeko, gure enpresei ekintzailtza ekosistemaren ikuspuntu hobea emateko.

Cebek: Cebek Emprende eta BEAZ S.A.U.-ko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzuaren arteko koordinazioa hobetzeko eta barne-ekintzailtzarako ekimenean izandako lankidetza.



Ekintzaile eta enpresa berritzaileen errekonozimendua

ON Bizkaia enpresa sariak Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraiatzeko gure lurraldean jardura ekonomikoa eta lanpostuak sortzen egiten duten ekarpenarengatik. Bizkaiko Foru Aldundiaren programa-deialdietan aurkezten diren enpresen proiektuak saritzen dira, zenbait ataletan. Startup eta spin-off-en ibilbidea ere errekonozitzen da. 2019an bosgarren edizioa burutu zen.

Errekonozimenduak emateko eta Bizkaiko enpresentzat interesgarriak diren gaiak aztertzeko, VIII. Bizkaia Enpresa Bilera antolatu zen eta 500 enpresak baino gehiagok parte hartu zuten. Gai nagusia ezkutuko txapeldunak izan zen.



Sorkuntza proiekturik onena	The Art of Discovery
Berrikuntza proiekturik onena	Laip
Nazioartekotze proiekturik onena	Pronutec
Bizkaia Sortzailea proiekturik onena	Mercules
Gizarte berrikuntza proiekturik onena	Ubikare Zainketak
Spin off baten ibilbidea errekonozitzea	Bas Corporation
Startup baten ibilbidea errekonozitzea	Wegow

Etekin operatiboa

2018an Beazek guztira Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren 7 programa kudeatu ditu. Ia 500 enpresak erabili dituzte Beazek ematen dituen zerbitzuak eta bere enpresa haztegien sarean 112 ekimen daude inkubatuta. Halaber, azpimarratzekoa da Beazek laguntza-programa edo zerbitzuen bidez harremana duela Bizkaiko 1500 enpresa baino gehiagorekin.

NOTA: Proiektuak 2019ko irabazpenen laguntza

2019	
Aurrekontu operatiboa (M€)	5
Batez besteko langile kopurua	44
Kudeatutako programak	7
Programetan kudeatutako M€	16,5
Kudeatutako espedienteak	704
Jarraipena egiten zaien espedienteak	929
Zerbitzuez onuratu diren enpresak	+ 500
Diru-laguntza eta zerbitzuez onuratu diren Bizkaiko enpresen multzoa	+ 1500





Sabino Arana 8

48013 Bilbao

T. 944395622

beaz@beaz.eus

beaz.bizkaia.eus